

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

**Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuaren 1187/2020 FORU AGINDUA, maiatzaren 26koa, zeinaren bidez erabakitzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 3ko 19/2020 Foru Dekretuari lotutako administrazio-prozedura izapidetzen jarraitzea. Foru-dekretu horren bidez, Foru Aldundiaren diru-laguntzen oinarriak eta deialdia onartzen dira, 6.000 biztanle baino gutxiagoko Bizkaiko udalerriek 2020ko ekitaldian kultur jarduerak egin ditzaten.**

*Aurrekariak*

2020rako indarrean dagoen sailaren dirulaguntzen plan estrategikoan zenbait dirulaguntza-programa jaso ziren eta, aurreikuspen horien arabera, besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 3ko 19/2020 Foru Dekretua izapidetu zen. Foru-dekretu horren bidez, Foru Aldundiaren diru-laguntzen oinarriak eta deialdia onartzen dira, 6.000 biztanle baino gutxiagoko Bizkaiko udalerriek 2020ko ekitaldian kultur jarduerak egiteko, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean martxoaren 16an argitaratu zena

Epe hau ezarri zen eskabideak aurkezteko: foru-dekretua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik, hau da, martxoaren 17tik 2020ko apirilaren 30eko 13:30ak arte.

Programa honen epe-mugak eta epeak ezartzeko kontuan hartu zen aurreko ekitaldietako egoera eta epe bertsuak izango zirela, eta egoera egonkorra zela eta hala izaten jarraitzea espero zela. Egoera hori aldatu egin da administrazio-prozeduren epe-mugak eta administrazio-epeak etetea xedatu baitzen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan —haren bidez, alarma-egoera deklaratzeko da COVID-19ak sortutako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko— eta gerora onartutako luzapenetan. Azken hauek direla-eta, 2020ko ekainaren 7ko 00:00ak arte dago luzatuta deklarazio hori, foru-agindu hau onartu den egunean.

Apurka-apurka jarduera egiten hasiko denez eta telelana orokortu denez, oraingo egoeran posible da alarma-egoeraren ondorioz dekretutako mugikortasun-murrizketak ezarri aurretik zeuden antzeko baldintzetan prestatzea dirulaguntzetarako proposamenak eta horretarako eskabideak aurkeztea. Kontuan hartu behar da, gainera, eskabideak telematikoki aurkeztu behar direla, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

Aurrekoari gehitu behar zaio maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuan xedatutakoa. Haren bidez, luzatu egiten da martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma-egoera (errege-dekretu honen bidez, alarma-egoera deklaratzeko da COVID-19ak sortutako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko), eta 9. artikuluan ezarritako 2020ko ekainaren 1etik aurrera berriro zenbatzen hasiko direla etendako administrazio-epeak, edo epea berriro hasiko dela, hala erabaki bazen alarma-egoera eta haren luzapenak indarrean egon diren denboran onartutako lege-mailako arau baten bidez.

Egoera honetan, indarreko administrazio-epeak etetea ez da babes bat laguntza-programa honen erakunde onuradunentzat, hau da, 6.000 biztanle baino gutxiagoko Bizkaiko udalerrientzat, kontrakoa baizik. Izan ere, kalte handia eragiten die eteteak, gehiegi luzatzen delako eskabideak aurkezteko epea, eta, ondorioz, ziurgabetasuna dakarkielako haien jarduera planifikatzeko eta aurrekontuko aurreikuspenak zehazteko.

Berez aukera dago espediente hauek instruitu, antolatu eta ebazteko alarma-egoeraren ondorioz ezarritako mugikortasunaren arloko murrizketekin ere, badaudelako baliabide teknikoak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko langileek lan horiek egin ditzaten.



Hori dela eta, Kultura Zuzendaritza Nagusiak beharrezkotzat jo du Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 3ko 19/2020 Foru Dekretuari lotutako administrazio-prozedura izapidetzen jarraitzeko erabakia hartzea eta, beraz, eskabideak aurkezteko epea berriro hasteko eta amaitzeko eta deialdia egoeraren arabera egokiagoak diren epeetan instruitu eta ebazteko aukera ematea.

*Oinarri juridikoak*

*Lehena:* Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko osasun-larrialdiko egoera deklaritzen duenak, hirugarren xedapen gehigarrian ezartzen du administrazio-prozeduren epe-mugak etetea eta administrazio-epeak etetea. Hirugarren Xedapen Gehigarri horren hirugarren eta laugarren paragrafoetan, hurrenez hurren, espedienteak antolatu eta bideratzea eta administrazio-prozeduren jarraipena egitea ekar dezaketen salbuespenak jasotzen dira, honela:

«3. Aurrekoa gorabehera, organo eskudunak, ebazpen arrazoitu bidez, prozeduran interesdunaren eskubide eta interesetan kalte larriak saihesteko behar-beharrezkoak diren antolamendu- eta instrukzio-neurriak erabaki ahal izango ditu, betiere interesdunak adostasuna adierazten badu, edo interesdunak epea ez eteteko adostasuna adierazten badu.

4. Aurreko paragrafoetan xedatutakoari kalterik egin gabe, sektore publiko erakundeek, errege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, erabaki ahal izango dute, arrazoiak emanez, alarma-egoera justifikatzen duten egitateekin lotura estua duten egoerei buruzko administrazio-prozedurekin jarraitzea, edo interes orokorra babesteko edo zerbitzuen oinarrizko funtzionamendurako ezinbestekoak diren prozedurekin jarraitzea.

*Bigarrena:* Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiaren 10/2020 Instrukzioa eman da, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak osorik edo zati batean izapidetutako prozeduretan administrazio epe-mugak eta epeak etetea aplikatzeari buruzkoa eta zerga-arloko ezohiko neurriak zergaz kanpoko baliabide publikoei aplikatzeari buruzkoa, COVID-19 koronabirusak eragindako nazioarteko garrantzia duen osasun publikoko larrialdia dela-eta. Bere bigarren puntuan honako hau ezartzen du:

«Lehenengo paragrafoan adierazitako etendura orokor eta automatiko horren salbuespenak izango dira honako kasu hauek:

- [...]
- b) Interesdunak adierazi ahal izango du ados dagoela epea ez etetearekin.
  - c) Organo eskudunak erabaki ahal izango du, arrazoiak emanez, osasun-larrialdiko egoerekin lotura estua duten egoerekin zerikusia duten administrazio-prozedurekin jarraitzea, edo interes orokorra babesteko ezinbestekoak diren egoerekin jarraitzea.

[...].»

*Hirugarrena:* Aurrekarietan adierazitakoa kontuan hartuta, badaude Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 3ko 19/2020 Foru Dekretuari lotutako administrazio-prozedura izapidetzen jarraitzeko erabakia hartzea ahalbidetzen duten interes orokorra babesteko inguruabarrak.

*Laugarrena:* proposatutako neurria hartzeko eskumena Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuari dagokio, aipatutako dekretuaren azken xedapenetako lehenengoan berariaz eman baitzaio ahalmena dekretua «garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan».

Halaber, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuaren eskumena jasota dago dekretu horren 12. oinarrian, non ezartzen baita bera dela eskabideak ebazteko organo eskuduna.



Hori guztia oinarri hartuta, honako proposamen hau aurkezten zaizu:

FORU AGINDUA

*Lehenengoa:* Erabaki da Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 3ko 19/2020 Foru Dekretuari lotutako administrazio-prozedura izapidetzen jarraitzea. Foru-dekretu horren bidez, Foru Aldundiaren diru-laguntzen oinarriak eta deialdia onartzen dira, 6.000 biztanle baino gutxiagoko Bizkaiko udalerriek 2020ko ekitaldian kultur jarduerak egin ditzaten.

*Bigarrena:* Prozedura izapidetzen jarraitzeko erabakiaren ondorioz, eskabideak aurkezteko epea 2020ko ekainaren 22an (astelehena) amaituko da, 13:30ean.

*Hirugarrena:* Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematen da, eta horrek jakinarazpenaren ondorioak izango ditu, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan xedatutakoaren arabera, hargatik eragotzi gabe beste bide batzuetatik zabaltzea.

*Laugarrena:* Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2020ko maiatzaren 26an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,  
LOREA BILBAO IBARRA